

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## CEINek ekintzaile izan nahi dutenentzako doako tailer bat antolatu du datorren ostegunerako, hilak 12

*"Ekintzaileen pokerra" delako tailerraren asmoa da partaideei ekiteko dauzkaten baliabideak antzematen eta negozio-aukerak eraikitzen laguntzea*

Viernes, 06 de septiembre de 2013

CEIN sozietate publikoak (Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarrak) ekintzaile izan nahi dutenentzako doako tailer berritzaile bat antolatu du hilaren 12rako: "[Ekintzaileen pokerra](#)".

"Joko serio bat" da (ingelesez "serious game"), bi helburu dituena. Batetik, partaideei ekintzaile izateko behar dituzten eta barruan dauzkaten baliabideak aurkitzen laguntzea; eta bestetik, eskura dauzkaten baliabideak konbinatuz negozio-aukerak eraikitzen erakustea.

Hala, "Ekintzaileen pokerra" tailerreko lehen zatian, partaideek dauzkaten baliabideen inentarioa egingo dute, hiru arlo hauek kontuan hartuta: nor naiz, zer egiteko gai naiz eta zer harreman dauzkat. Baliabide horiek karta bihurtuko dira eta, jokatzeko hasteko, bosna karta aukeratu beharko dituzte. Ondoren, jokoari hasiera emango diote, taldeka. Horrela, taldekideen baliabideak konbinatuko dituzte, negozio-aukerak sortzeko.

Tailerra doakoa da eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatu du. Parte har dezakete dauzkaten gaitasunak oinarri hartuta ekintzaile izan edo negozio-ideiak identifikatu nahi dituztenek eta denbora luzean lanik gabe egon direnek. Irakaslea Mario Lopez de Avila, Nodos en la Red aholkularitza-enpresako zuzendaria, izango da; enpresa hori erakundeen portaeran eta sormenean espezializatuta dago. Zehazki, tailerra Navarra Faktoriren instalazioetan emango du (Mocholí industrialdea, CEIN plaza 5, Noain), irailaren 12an, 10.00etatik 13.00etara. Izena emateko 848 42 60 00 telefono-zenbakira deitu edo helbide elektronikoko honetara idatzi besterik ez dago: [administracion@cein.es](mailto:administracion@cein.es).